

Fedea: esperientzia

3. saioa

Zer nolako fede esperientzia dugun (ala ez dugun) galdetuko dugu saio honetan. Sinestedun izatea, ideia batzuekin bat etortzea, sineste batzuk aitortzea edo jokaera jakin bat nork bere egitea baino gehiago dela ikusaraztea (gogoraraztea eta sakontzea) da helburua; hau da, fede esperientzia, bizitza osoa zentzuz betetzen duen esperientzia dela sentiaraztea¹.

Saiorako deialdian, familia bakoitzari familia-argazkia ekartzeko eskatuko zaio.

SAIOAREN HELBURUAK

Helduak:

- Bizitzako oinarrizko gaiei zentzua ematea ezinbestekoa dela antzeman
- Kristau fedea Jesukristorekin bat egitearen esperientzia dela eta bizitza osoa zentzuz betetzen duela antzeman
- Beste fededun batzuen lekukotasuna jaso eta horri interpelatzen utzi

Haurrak:

- Jesus lagun hurkoa dela, maite gaituela eta beti gure ondoan dagoela jakin
- Jesusekiko adiskidetasunezko hartu-emana piztu

GARAPENA

Heldu eta haurrak elkarrekin daudela, aurkezpena egingo da beste behin ere. Prozesuko lehen saioak direnez, baliteke taldekide berriak izatea eta oraindik taldeko familiek elkar ez ezagutzea. Horregatik, garrantzitsua da hasierako harrera eta aurkezpen honetan arreta jartzea, taldean ezinbesteko konfiantzazko giroa sor dadin.

Une honetan, gainera, eragileak saioan landuko den edukiaren aurkezpen orokorra egingo du. Ostean, helduak eta haurrak banatu eta leku desberdinetara joango dira.

HELDUAK

¹ Iruña eta Tuter, Bilbao, Donostia eta Gasteizko Gotzainen *Fedearen esperientzia bizi* 2003ko Garizuma – Pazko aldiko Pastoral Idazkiko 2., 3. eta 4. kapituluak irakurtzea gomendatzen zaie eragileei:
http://www.bizkeliza.org/fileadmin/documentos/_pastorales_conjuntas/2003_carta_pastoral_es.pdf

Kristau elkarteko pare bat laguni eskatuko diogu aurretik saiora etortzeko, beraien fede lekukotasuna eman dezaten. Delako pertsona horiek, beraien perfil eta ibilbidea dela-eta, esanguratsuak izango dira taldeko gurasoentzat. Aipatutako pertsona horiei, beraz, beraien fede esperientziaren ingurukoak kontatzeko eskatuko diegu, kontakizuna eratzeko lagungarri izan daitezkeen galderok emanez:

- Nolakoa izan da zure fede esperientzia bizitzan zehar?
- Zertan datza zuretzat eguneroko bizitzan fededun izatea?
- Fedeak, fededun izateak, "estilo" jakin bat ematen dizu, zure bizitza "koloreztatzen" du?
- Aldatuko litzateke zure bizitza fededun izango ez bazina?

Saioaren hasieran, ohartarazpena egingo diegu gurasoei: beraien seme-alabak bataiatzeko hautua egin badute, haiengan fede esperientzia esnatzeko borondatearen eraginez izan da, hau da, beraiek ere era bateko edo besteko fede esperientzia dute eta horrek eraman ditu seme-alaben bataioa eskatzera. "Zer da zuretzat fedea, zer da fededun izatea?", galdera egingo diegu eta gurasoek erantzun egingo dute (une honetan, kontua ez da gauzak argitzea edo adierazten dituzten iritzien inguruko eztabaida piztea, taldekideek fedez ulertzen dutena adieraztea eta elkar entzutea baizik).

Taldekideen ekarpenak entzuteko astia eman eta, ostean, "Fede esperientzia" idazkia irakurri. Testua irakurri eta komentatu egin daiteke, bertan agertzen diren galderaz baliatuz.

Idazkia irakurri eta handik sorturiko ideiak batera jarri ondoren, konbidatuek beraien lekukotasunak emango dituzte eta beraiekin elkarrizketan jardungo dute taldekideek. Elkarrizketa honetan, taldekideek beraien fede esperientzia kontatzea litzateke egokia eta, horretarako, ondorengo galderok edo antzerako batzuk lagungarri izan daitezke:

- Zein fede esperientzia, Jesusekin bat egitearen zein esperientzia izan duzu (edo ez duzu izan) zure bizitzan?
- Zein garrantzi du fedeak zure bizitzan?
- Guraso bezala, zein galdera egiten dizu guzti honek?

(Saioan proposatutako guztia egiteko astirik ez bada, *lehentasuna eman lekukotasunei* eta "Fede esperientzia" idazkia gurasoen artean banatu etxean irakurri eta bikotean komenta dezaten).

HAURRAK

Hasteko, Adiskide berezia ezagutuko dutela iragarriko zaie haurrei. Adiskide horrek maite gaitu eta beti dago gurekin. Jesus du izena.

Elkarrekin, Jesusen "argazkia" eratu dugu. Pertsona baten silueta duen paper handi bat izango dugu prest. Jesusen argazkirik ez dugula azalduko diegu haurrei eta geuk egingo dugula bat.

Sei taldetan banatuko ditugu haurrak eta kartulina eta margoak emango dizkiogu talde bakoitzari. Jesusen argazkia sei zatitan banatuko dugu (talde bakoitzak bat margotu eta ebakiko du; txikiak badira, lagundu egin beharko diegu).

- 1. taldea: Begi handiak. Jesusek begi handiak, zabal-zabalik dauden begiak behar ditu, adi dagoelako beti, denon beharrei begiratzeko.
- 2. taldea: Irribarre zabala, Jesus alai dela eta denok pozik egotea nahi duela adierazteko.
- 3. taldea: Belarriak erne, Jesus kontatu nahi dugun guztia entzuteko prest delako beti.
- 4. taldea: Esku handiak, beti prest gu zaintzeko, ferekatzeko eta besarkatzeko.
- 5. taldea: Oin arinak, Jesusek mundu guztiko mutiko eta neskato guztiengana iritsi nahi duelako.
- 6. taldea: Bihotz oso-oso handia, mundu guztiko pertsona guztiak, haur nahiz heldu, asko maite dituelako.

Talde bakoitzak dagokion atala bukatzeaz batera siluetan itsatsiko du, gainerako taldekideei zer marraztu duten eta zergatik azalduz. Atal guztiak jarrita daudela, elkarrekin bukatuko dute argazkia, nahi duten bezala margotuz eta apainduz.

Elkarrekin osatu duten "Jesusen argazkia" hurrengo saioetan ere gelan jarrita egon daiteke, Bera beti gure ondoan dagoela gogoratzeko.

Amaitzeko, zera kontatuko diegu: mutiko eta neskatoak Berarengana hurbiltzea eta bere adiskide izatea nahi duela Jesusek. Geuk ere, izan nahi dugu bere adiskide? Adiskide minek, elkarri kontatzen dizkiote gauzak eta gauza bera egin dezakegu Jesusekin hitz eginez: zerbait esango diogu Jesus adiskideari (isilik edo ozen). Eta Jesus gure adiskidea dela abestuko dugu.

DESDE EL DÍA EN QUE DIJISTE:

"¡DEJAD QUE LOS NIÑOS SE ACERQUEN A MÍ!",
DESDE ENTONCES, *JESÚS, TÚ ERES NUESTRO AMIGO*

DESDE EL DÍA EN QUE DIJISTE:

"¡DEJAD QUE LOS NIÑOS SE ACERQUEN A MÍ!",
DESDE ENTONCES, *JESUS, LAGUN MINA ZAITUGU*

AZKEN UNEA ELKARREKIN

Familiak elkartu egingo dira berriro. Haurrek "Jesusen argazkia" murala erakutsi eta azalduko diete helduei.

I multzoa:

Bizia, gainditu egiten gaituen esperientzia: Fedea, esperientzia

Jesusekiko adiskidetasunean aurrera-pausua eman nahi duten galdetuko die eragileak familiei. Jesusengana gehiago hurbiltzeko borondatea adierazte aldera, familia bakoitzak Jesusen siluetaren ondoan itsatsiko du bere argazkia.

Amaitzeko eskerrak emango dizkiote Jesusi gure ondoan delako, abestuz: DESDE EL DÍA EN QUE DIJISTE...



Bilboko
Elizbarrutia
DIÓCESIS DE BILBAO

Fede-zabalkunde
eta Katekesirako
Ordezkaritza

esnatu